

"orixe"ri gorasarre

BETI LAGUN

*Animaque, umbraque
silentes.*

(Virgilio)

...? non aut? az ote da auxe
lengo Tolosa?
...aket entzun berriro
...oxo-aren ota?
...garra, lurrindu bedi
...alko mingotsa,
...uke nik iregatik
...itea, lotsa.

...ua ikusten diat
...iñua ikusten diat
...i on txingarra;
...u dela niokok
...ien irri-parra.
...iztal lillak haude,
...eri ire garra,
...adan azken-aginduz
...ken bearra.

...oak egin nai eta
...la nauk oldartu;
...dan bein ta berriro
...dilla lelatu.
...dak argi orreakin,
...ren aingeru,
...en diat garbien
...aren erraiñu.

...zin, ez ta aingerurik
...tzean iduri;
...hoiz konturatzan nauk
...nautela ni,
...ik bizi ontara

I aut bitartean argi;
erraiñu onen dirdala lagun
aurroan zeuzkeat beti.

Beretarhiden, itueri askan
agertu didak begia,
ostu tartetik iragazirik
eguzkiaren izpia.
Nere surretik, ibilli gabe,
igaro uan mendia,
ikusl genin basora antzean
loretan den sagastia.

Lên lagun zintzo gorputz-bizitan,
orain ara, lagunago,
tekiz aldatzen nekeri ez duk
ez egal, eta ez zango.
Begi-orde ok aurreko ormara
eguzkiak jota baiño,
zintzogo abil nere aurrean,
abil ni bizi naizaiño.

Oroitu ta äztu, burruka diat,
tartzet bakar eguzkia,
erraiñu onek irauten balu,
auxe nere zorria.
Goibeltzen bazait, gainbero bedi
bego barren au gorria,
gorputz ustel au, gandu nãal au
daiteken arte ororia.

Biga atera duk, begiak lauso,
ikulu-zoko baltzetik,
begiak uraz igurtzi eta
lauso orrek aldegiten dik.
Egun otako negar-malkoak
txuka ditudanean nik,
ni il arte ez beza Jaungoikoak nai
ire erraiñua galtzerik.

Nere bigarren albo-aingeru,

nere Jainko-erakusle,
il arte lagun, ortik onera
etzegok len ainbat bide.
Bakar-bakarrik nakustenean
jondeak esan bezate:
bekokian dik arez itzala,
lagun dik oraindik oro.

BETI-DANTZA

PIONER V'GARRENA TA NI

*Olerki auxe da nunbait Orixo za-
naren azkenengoa. Dakusgunez, ba-
ditu bere biur-unak idazkeran eta;
gol-mozulari, ortzi zear igorritako
Pioner V'garren dalakoaren gorabe-
rak ederto azaltzen daukuz. Auxe
nai eban, antza, Olerki'k eratutako
sariketara bialdu; baina Tolosa'n
be sarri galanta jaso ebalako edo,
lotsa zan. Onela idatzi eustan be-
rau Olerki'rako bialduez; «Olerki'ren
batzaldirako onaz ausartzen ezebe
biiltzen; lotsa amaten deust alde
batera. Loba azl da beure saloa
egiten. Nik extra concrsium bialdu
bearko dot».*

A. O.

Zimizten ziztuan
ba doa Pioner
mundu berri billa;
arteon omen ni,
oial josirik,
neregan bilbilla.

Pioner'ek baiño
asko bizkorrago

dut nik eragiña;
piztu bazan piztu,
etzait atertuko
barrungo irakiña.

Goizoroz esnatuz
aurrea artzen diot
nonai dijoala;
zenbat oroitaldi,
ainbat jun-etorri
geldi nagoala.

Amairu milla
milloi argi-urte
aldetik sidera;
ontatik, Pioner
zein beian dabillan
kontuak atera.

Suiziri Pioner,
i baiño geio nauk
egon eta ibil;
nere barranean
atergabe ari
zaizkidak lau gurpil.

Bi txaki, bi aundi,
morroi ta nagusi,
ia alkarren etsai;
amaika burruka
eman oi ziguteki
alkar mendera nai.

Batez bat gaztetan
lau oien ekiña
neurritz doanean,
gaztea gizon duk,
ez zãrra bakarrik
zugurtasunean.

Lau oien izenak:
adimen, nahimen
irudi ta gale;
alkarri zirika,
maitagarri diran
gauza denon zale.

Baiña koketatik
atera balediz,
al zer iskanbilla!
Gaztealdi ua,
neretzat beinik bein,
itzul ez dedilla!

Gurpil ortzadunok
alkar artu eta
koketan dirala,
gorputz animetan
ez degu sumatzen
pakea makala!

Ekiñ eta jardun,
ortz oriek noizbait
legunduko dira;
egunen batean
gorputza ta anima
bakanduko gira.

Baiña guk ekiñ au
ez degu galduko
erdi au galduta;
beste erdi au bizi
geldituko zaigu
trabak uakotuta.

ZOZKETAREN ONDORENA

BASERRITARRENTZAT ZOZKETA

